


# Filmatzeko baimen-eskabidea betetzeko gida



Kontsulta ezazu gida hau, kokalekuaren behar zehatzak betetzeko.

## NOIZ DA BEHARREZKOA UDALAREN BAIMENA?

Baimenak beharrezkoak dira bide publikoaren erabilera pribatiboa edo berezia egiten denean. Baimena behar da, besteak beste, ibilgailu, bizikleta edo oinezkoen zirkulazio librea eten behar denean; espazio publikoetan eremu bat mugatu edo garabiak edo travellingak jarri behar direnean; oinezkoen eremuetara ibilgailuz sartu behar denean, edo filmaketarako aparkaleku-espazioa erreserbatu beharra dagoenean.

## ZEIN EGUNETARAKO ESKATZEN DEN BAIMENA

Eskabide-fitxan, filmaketa-egunen atalean, kokalekua erabiliko den egun guztiak adieraztea gomendatzen da, hau da, muntatzeko, desmuntatzeko eta filmatzeko egunak.

Halaber, filmaketa-egun bat baino gehiago sartzea komeni da, eskatutako filmaketa-egunetarako bakarrik ematen baita baimena. Eguraldi kontuengatik edo bestelako arrazoiengatik filmaketa-lanak egitea ezinezkoa balitz eta egun bat baino gehiago eskatu ez balitz, eskatzaileek ez dute baimenik izango eta beste eskabide bat egin beharko dute; horrek esan nahi du berriro hasiko dela tramitazio-denbora.

Halaber, filmaketa-egunak aldatuz gero, ezeztatuta geratuko da aurrez egindako eskabidea, eta berriro hasiko da baimenak kudeatzeko epea. Horregatik, filmaketa-aldi bat eskatzea gomendatzen da, grabaketarako aurreikusitako eguna adieraziz. Adibidez:

*"Filmaketa-egun bat maiatzaren 15a eta 18a bitartean, aurreikusitakoaren arabera, hilaren 16an".*

## BIDE PUBLIKOAN ELEMENTUAK JARTZEA

Beharrezkoa baldin bada filmaketarako bide publikoan elementuren bat jartzea (atreztoa, karpak, eszenatokiak, makillajerako eta ile-apainketarako espazio bat...), ondorengoak adierazi behar da:

- Zer jarriko den.
- Non.
- Elementuen dimentsioak eta ezaugarriak.
- Elementua ondo identifikatzen lagunduko duten argazkiak, dokumentazioa, etab.

## OINEZKOEN / BIZIKLETEN TRAFIKOA

Filmaketarako beharrezkoa baldin bada oinezkoen edo bidegorriko trafikoa moztea, zera adierazi behar da:

- Mugatu beharreko metroak eta eremua.
- Udaltzaingoaren laguntza behar den, oinezkoen edo bidegorriko trafikoa mozteko.

## APARKALEKUA / ESPAZIOA ERRESERBATZEA / SARBIDEA

Filmaketarako hauetako zerbait behar bada, zera adierazi behar da:

- Aparkalekua / errepidean ibilgailuentzako espazioa erreserbatzea:
  - Zein kaleri eragiten dion.
  - Kale horretako zenbakiak.
  - Metro linealak.
- Oinezkoentzako eremuan era guztietako ibilgailuak sartzea edota aparkatzea:
  - Ibilgailuen pisua eta dimentsioa.
  - Eragindako eremua. Kalea baldin bada, zein zenbakitatik zein zenbakitara.
  - Beharrezko metroak.
  - Kargatzeko edo deskargatzeko sartuko diren.
  - Ibilgailuaren matrikula.

## IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA. OKUPAZIOA EDO TRAFIKO-MOZKETA

Filmaketarako hauetako zerbait behar bada, zera adierazi behar da:

- Ibilgailuz zirkulatzea oinezkoentzako eremu batean:
  - Ibilgailuen pisua eta dimentsioa.
  - Beharrezko metroak.
  - Eragindako eremua. Kale horretako zenbakiak adierazi.
- Errepidean zirkulazioko errei bat okupatzea:
  - Zein kaleri eragiten dion.
  - Kale horretako zenbakiak.
  - Beharrezko metroak.
- Bidegorri bat okupatzea:
  - Bidegorriaren zona.
  - Beharrezko metroak.
- Trafikoa kontrolatzea / zati bat edo osorik moztea:
  - Zein kaleri eragiten dion.
  - Beharrezko metroak.
  - Iraupena.
  - Ordutegia.
- Trafikoa mozteko Udaltzaingoaren laguntza behar den.

## BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK

Egiazta ezazu filmaketarako hauetako zerbait behar den, eta adierazi:

- Ur-harguneren bat erabiltzea.
- Edukiontzia, piboteak, trafiko-seinaleak edo beste elementu batzuk kentzea.
- Hiri-altzariak aldatzea.

Egin beharreko ekintzak deskribatzeko, oso erabilgarria izan daiteke planoak, argazkiak eta bestelako materiala eranstea.

## CATERINGA

Filmaketa egingo den bide publiko eremuan elikagaiak kontsumitu behar badira, beharrezkoa da horretarako berariazko baimena, hasieratik eskatu behar dena.